

**2009ko AZAROAREN 5ean LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2009ko azaroaren 5ean, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.30 orduetan, Xabier Mujika alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: Adela Mendiola Gomez
Iñigo Aginalde Lertxundi
Karlos Irazu Muñoa
Igor Barandiaran Perez de Arriluzea

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

...//...

Alkate-lehendakari jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten den Udalbatzarreko akta onestu, hala badagokio:
- 2009ko urriaren 1ean egindako ohiko bilkura.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. 2010 ekitaldirako Udal Ordenantza Fiskalak eta Udal zerbitzuak eskeintzeagatik Tasa eta Prezio Publikoen Ordenantzak onartzea, hala badagokio.hala bada.**
- 4. Larraulgo Udalaren datu pertsonalen fitxategiak sortzea, aldatzea edo ezabatzea, hala bada.**
- 5. 2009 urteko herriko jaien kitapenaren berri ematea, hala bada.**
- 6. J.J.S. jaunak Larrola nekazaritza ustiategiaren inguruan egindako obrai buruzko kexaren azterketa, hala bada.**
- 7. Fakturak eta ordainketak.**
- 8. Beste batzuk.**
- 9. Erregu, galderak eta mozioak.**

.../...

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADAGAKIO.

- ▣ 2009 urteko urriaren 1eko Ohiko Udalbatzaren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

53/2009 Alkatetza Ebazpena, urriaren 8koa, ur eta zabor tasaren errolda onestea eta erreziiboak ordaintzeko borondatezko epea finkatzea, ebazten duena.

54/2009 Alkatetza Ebazpena, irailaren 15ekoa, Gilder Ingenieros S.L. enpresari “ Redacción del proyecto y dirección de obra de renovación de la red de distribución de agua en Larraul” proiektua idazteko kontratua esleitzea, ebazten duena.

55/2009 Alkatetza Ebazpena, urriaren 27koa, Larraulgo Kultur etxeke balioanitz gelan ludoteka gune bat sortzeko proiektua onestea, ebazten duena.

56/2009 Alkatetza Ebazpena, urriaren 15ekoa, Excavaciones y Transportes Oruezabal S.A. enpresari, Katilutxulo bidea konpontzeko obra kontratua esleitzea, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

HIRUGARREN PUNTUA

2010 EKITALDIRAKO UDAL ORDENANTZA FISKALAK ETA UDAL ZERBITZUAK ESKEINTZEAGATIK TASA ETA PREZIO PUBLIKOEN ORDENANTZAK ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Ikusirik 2010. urterako udal ordenantza fiskalak aztertzeke unea dela.

Ikusirik 2009 urteko urriaren 20ean Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak igorritako txostena, non jasotzen den ordenantza fiskalak sortu, aldatu eta ezabatzeko jarraitu beharreko prozedimendua, batetik, eta bestetik, 2009ko ekitaldian Udala aplikatzen datorren zerga eta tasak.

Ikusirik 2009eko azaroaren 5ean Ogasuneko Batzorde Informatzaileak eginiko aldaketa proposamenak.

Gaia eztabaidatu ondoren, Udalbatzak, ahobatez,

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- 2010 urterako zergak arautzen dituzten ordenantza fiskalari dagokionez, ondorengo aldaketak onestea:

1.1.Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren kuotak zehazteko funtsezko elementuak arautzen dituen ordenantza fiskala.

Ordenantzaren eranskina mantentzea erabaki da.

Hiri Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari aplikagarri zaion karga tasa zoru industrial edo tertziarioan: %0,30.

Gainerako hiri ondasun higieziari aplikagarri zaion karga tasa: %0,25.

Landalur Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari aplikagarri zaion karga tasa: %0,60.

1.2.Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren ordainarazpenerako zenbait ahalmen arautzen dituen ordenantza fiskala.

Zerga honen kuotak zehazteko finkatutako gutxienezko kuoten gehikuntza-koefizientea % 2,2 finkatzen da. Mantentzea proposatzen da.

1.3.Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren kuota zehazteko funtsezko elementuak arautzen dituen Ordenantza Fiskala.

Zerga hau mantentzea proposatzen da.

Ibilgailu mota eta potentzia Koefizient. Euroak

A)Turismoak:

9 zaldi fiskal bitartekoak %1,58.....	28,48
9 - 11,99 zaldi f. bitartekoak %1,58.....	56,97
12 - 13,99 zaldi f. bitartekoak %1,58.....	94,95
14 - 15,99 zaldi f.bitartekoak %1,58.....	132,94
16 - 19,99 zaldi f.bitartekoak %1,58.....	170,92

20 zaldi fiskaletik gorakoak %1,58..... 208,90

B)Autobusak:

21 plaza bitartekoak %1,58.....131,61

21 - 50 plaza bitartekoak %1,58.....187,45

50 plazatik gorakoak %1,58.....234,31

C)Kamioiak:

1.000 kg. Bitarteko karga erabilgarria %1,58.....66,80

1.000 - 2.999 kg. bitarteko k.e. %1,58.....131,61

2.999 - 9.999 kg. bitarteko k.e. %1,58.....187,45

9.999 kg-tik gorako k.e. %1,58..... 234,31

D)Traktoreak:

16 zaldi fiskal bitartekoak %1,58.....27,91

16 – 25 zaldi f. bitartekoak %1,58..... 43,87

25 zaldi fiskaletik gorakoak %1,58.....131,61

E)Trakzio mekanikoko ibilgai-luen atoi eta erdi-atoiak:

750-1000 kg. bitarteko karga erabil-garria %1,58.....27,91

1.000 - 2.999 kg. bitarteko k.e. %1,58.....43,87

2.999 kg.tik gorako karga e. %1,58.....131,61

F)Gainerako ibilgailuak:

Ziklomotoreak %1,58.....6,98

Motozikletak: 125 z.k. bitartekoak %1,58.....6,98

Motozikletak 125 - 250 z.k. bitartek. %1,58.....11,96

Motozikletak 250 - 500 z.k. bitartek%1,58.....23,93

Motozikletak 500 - 1.000 z.k. bitartek. %1,58.....47,85

Motozikletak 1.000 cctik gora %1,58.....95,71

1.4. Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga arautzen duen ordenantza fiskala.

Baserrien berrikuntza	%2,5
Besteak:	
a) 60.000,00 euro arteko aurrekontua dutenak:	%4,50
b) 60.000,01 euro baino gehiagoko aurrekontua:	%5,00

HOBARIAK:

- % 50 eko hobaria, eraikuntza, instalazio eta obrek ezgaitasun bat duten pertsonen irisgarritasun eta bizigarritasun baldintzak errazten dituztenean.

Hobari hau aplikatzeko, baldintza hauek beteko dira:

-Ezgaitasun kalifikazioa edukitzea.

-Mugikortasun baremoan, gutxienez, 7 puntu izatea.

-Kuota zehazteko, obraren aurrekontu osoa hartuko da kontuan, baldin eta obraren helburu bakarra eraikina ezgaitasunen bat duten pertsonen sarbide eta bizi baldintzak hobetzea bada.

-Obrek eraikina berritzeko helburua badute, baina aurrekontuan beste partida batzuk ere jasotzen badira ezgaitasunen bat duten pertsonen sarbide eta bizi baldintzak hobetzeko egokitzapenez gain, dagokion partidak bakarrik hartuko dira kontuan hobari eskubidea duen kuota zehazteko. Horretarako, nahitaezkoa izango da aurrekontua ondo bereizita aurkeztea helburu hori duten obren zatian.

1.5. Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala.

Karga tasa: % 6.29 an mantentzea proposatzen da.

BIGARRENA.- Tasak arautzen dituzten ordenantzei dagokionez, ondorengo aldaketak onestea:

2.1. Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatikoko tasak arautzen dituen Ordenantza Fiskala.

2.1.1. Ur horniketa.

Tasa hau mantentzea proposatu da.

1. Ur horniketa

Euroak

1.1. Ur Kontsumoa

1.1.1. Nekazal eta abeltzain ustiapenak ez direnentzat

30m³.bitartekoa, hiru hilabeteen 15,00 €

31m³tik goragokoa, hiru hilabeteen0,56 €/m³bakoitza

1.1.2. Nekazal, ganadu ustiapen erabilerak

30m³.bitartekoa, hiru hilabeteen 15,00 €

31m³tik goragokoa, hiru hilabeteen 0,56 €/m³bakoitza

1.2. Azpiegitura kanona

Guztientzat, hiruhilabeteko.....9,00€

1.3. Kontadoreen alokairuen kanona

Guztientzat, hiruhilabeteko.....8,00 €

1.4.- Hasierako engantxea etxe berrietan, etxeke 100,00 €.

1.5.- Hobariak: Gizarte-ongizate batzordeak proposatutakoak: Ikus I. eranskina.

-Baldintzak

- Larraulgo udalerrian familiako kide guztiak erroldatuta egotea.
- Ondasun higiezin bat baino gehiago bere izenean ez edukitzea etxebiztza bizi direnak.
- Taulan adierazitako diru sarrera eremuan aurkitzea.

- Aurkeztu beharreko dokumentazioa

- Familiako kide guztien NANaren fotokopia.
- Errolda eta elkarbizitza ziurtagiria.
- Familiako kide guztien diru sarreraren ziurtagiria: Errenta aitortpenaren fotokopia edo egitea behartuta ez dagoenaren agiria, eta bere kasuan langabezi txartela eta INEM-etik jasotzen den laguntzaren agiria.
- Foru Ogasunak emandako ondasunen agiria.

2.1.2.- Zabor bilketa zerbitzua

Euroak

Etxez-etxeko bilketa, hiruhileko.....	42,00 euro
Industria, komertzio eta taberna bilketa, hiruhileko.....	56,00 euro

Hobariak: Gizarte-ongizate batzordeak proposatutakoak: Ikus I. Eranskina.

-Baldintzak

- Larraulgo udalerrian familiako kide guztiak erroldatuta egotea.
- Ondasun higiezin bat baino gehiago bere izenean ez edukitzea etxebiztan bizi direnak.
- Taulan adierazitako diru sarrera eremuan aurkitzea.

-Aurkeztu beharreko dokumentazioa

- Familiako kide guztien NANaren fotokopia.
- Errolda eta elkarbizitza ziurtagiria.
- Familiako kide guztien diru sarreraren ziurtagiria: Errenta aitortpenaren fotokopia edo egitea behartuta ez dagoenaren agiria, eta bere kasuan langabezi txartela eta INEM-etik jasotzen den laguntzaren agiria.
- Foru Ogasunak emandako ondasunen agiria.

2.1.3.Dokumentu administratiboen igorpena:

2.1.3.1.Lizentziak, kontzesiok eta hirigintzako baimenak mantentzea proposatzen da:

- Hirigintz dokumentuen izapidetzea, txostena behar den kasuna. 80,00 euro.
- Segregazio baimenak..... 80,00 euro
- Hirigintza kontsultak..... 80,00 euro.
- Lehen erabilera baimena 105 euro/etxeko.
- Edozein P.E.R.I., Zati Plana, urbanizazio proiektu, xehetasun ikerketa.....1.600,00 euro

2.1.3.2.Iharduera baimenak

Euroak

A.1.IGOKA-ri lotuak.....	110,00 euro
A.2.IGOKA-ri ez lotuak.....	80,00 euro

2.2.Herriko jabari publikoaren erabilera pribatiboari eta haren aprobetxamendu bereziari dagozkion tasen Ordenantza fiskala

Tarifak mantentzea proposatzen da.

2.2.1.Hileta zerbitzuak:

- Hezurtegiaren emakida:
-Behin-betiko emakida, plaka
barne.....193,00€
- Nitxoen emakida:
-15 urteko epean, plaka,
apala,.....263,00€
-5 urte bitarteko
luzapenagatik.....122,00€
- Lurperatze tasa: 46,00 euro.

2.2.3.- Kirol instalazioen erabilera: *3 euro orduko.*

2.2.4.- Bestelako prestazioak:

- *Mapen salmenta: 3 euro unitatea.*

HIRUGARRENA.- 2010 ekitaldirako ondorengo Zerga Egutegia finkatzea:

1.- HOBARI ESKAERA: 2009 urteko abenduaren 1etik 31 arte.

2.- TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUAK:
2010 urteko apirilaren 1etik ekainaren 1 arte.

3.- URA ETA ZABORREN TASA:
2010 urteko maiatzaren 1etik ekainaren 30 arte.
2010 urteko abuztuaren 2tik urriaren 1 arte.
2010 urteko azaroaren 2tik abenduaren 31 arte.
2011 urteko otsailaren 1etik martxoaren 31 arte.

LAUGARRENA.- Erabakitakoaren berri udal iragarki taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz ematea, 30 laneguneko epea irekiz edonork espedientea aztertu eta erreklamazioak edota iradozikunak aurkezteko, bere kasuan. Erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, hartutako erabakiak behin-betikoz onartutzat emango dira beste erabakirik hartu gabe.

LAUGARREN PUNTUA

LARRAULGO UDALAREN DATU PERTSONALEN FITXATEGIAK SORTZEA, ALDATZEA EDO EZABATZEA, HALA BADA

Udalbatza honek aho batez ondorengoa ERABAKITZEN DU:

LEHENA: LARRAULGO Udalaren datu pertsonalen fitxategiak sortzea.

ZIOEN ADIERAZPENA

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren (DBLO) 20. artikulua xedatzen du Estatuko Aldizkari Ofizialean edo dagokion aldizkari ofizialean argitaratutako xedapen orokor baten bidez baino ezingo direla sortu, aldatu edo ezabatu Administrazio Publikoen titulartasunekoak diren datu pertsonalen fitxategiak. Xedapen orokor horren edukia ere artikulua horretan dago ezarrita.

Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen (DBEBL) 18. artikulua Datuak Babesteko Erregistroa sortzen du eta lege horren ezarpen eremuko fitxategiak erregistro horretan inskribatu behar direla ezartzen du.

Eusko Legebiltzarraren 2/2004 Legea garatzen duen urriaren 18ko 308/2005 Dekretuaren 2. artikulua ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoek datu pertsonalen fitxategiak sortu, aldatu edo ezabatzeko egindako eragiketen berri emango diotela Datuak Babesteko Euskal Bulegoari, Datuak Babesteko Erregistroan inskripzioa egiteko. Erabakia edo xedapena jakinarazteko, DBEBren zuzendariaren 2005eko uztailaren 25eko Ebazpenaren bidez onartu zen eredu normalizatua erabiliko da (2005eko abuztuaren 31ko 165 zk.ko EHAA).

2009ko Azaroaren 5ean, honako Xedapenaren bidez Zkia gaur egungo datuak babesteko legedira egokitzeko fitxategi hauek sortzen dira: Biztanleen Errolda, Langileriaren Kudeaketa, Kontagarri eta Ekonomi Kudeaketa (artekariak), Sarrera eta Irtererako Errolda, Administrazio-espeditenteak, Sarrera-bilketa, zerga-bilketa eta zerga-kudeaketa, Udal zerbitzuen erabiltzaileak, Herritarren Arreta, Izatezko Bikote Erregistroa fitxategiak sortuko dira, Larraulgo Udalak ezinbestekoa du bere eginkizunez baliatzeko.

1.- Ezarpen eremua

Xedapen honen bidez, Larraulgo Udalak, kudeatutako Datu Pertsonalen Fitxategiak arautzen dira.

2.- Datu pertsonalen fitxategiak sortzea

Ondoko datu pertsonalen fitxategiak sortzen dira. Dagokion eranskinean daude jasota fitxategiari buruzko xehetasunak:

- Biztanleen Errolda.
- Langileriaren Kudeaketa.
- Kontagarri eta Ekonomi Kudeaketa (artekariak).
- Sarrera eta Irtererako Errolda.
- Administrazio-espeditenteak.
- Sarrera-bilketa, zerga-bilketa eta zerga-kudeaketa.
- Udal zerbitzuen erabiltzaileak.
- Herritarren Arreta.
- Izatezko Bikote Erregistroa.

FITXATEGIAK SORTZEA

Sortzen diren fitxategi guztiak jaso beharko dira Eranskin honetan, eta, fitxategi bakoitzari buruz, **DBLOren 20.2** artikulua eskatzen dituen datuak adierazi beharko dira.

1. BIZTANLEEN ERROLDA

a) Fitxategiaren **helburua** eta fitxategi horretarako aurreikusi diren erabilerak: Udalak naitaez egin beharreko Biztanleen Erroldaren kudeaketari euskarri informatikoa eman, herriko hautesle-errolda elaboratzeko, helburu estadistikoak eta ohizko bizilekua edo eta bizilekua frogatzeko helburu ezberdinak.

b) **Zeintzuk pertsona edo kolektibori buruzko datuak** eskuratu nahi diren edo zeintzuk pertsona edo kolektibo dauden datuak ematera behartuta: Larraulgo biztanleak/ bizilagunak, Interesatuak edo euren legezko ordezkariak.

c) **Datu pertsonalak jasotzeko erabiltzen den prozedura:** Euskarri mistoetan, inkesten, elkarrizketen, deklarazioen eta formularioen bitartez.

d) **Fitxategiaren oinarritzko egitura** eta bertan sartutako datu pertsonal moten deskribapena: Norberaren datuak (Izen-abizenak, NAN, Helbidea, Telefonoa), ikasketei eta lanbideari buruzko datuak.

e) Datu pertsonalen **Lagapenak:** INE, EUSTAT eta beste herri Administrazioak (Toki araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 16.3 artikulua jasotzen dituen kasuetan).

f) **Administrazioetan Tratamendu Kontrolatzaile diren organoak:** Larraulgo Udala.

g) Zein zerbitzu edo unitateren aurrean **erabili ahal izango diren** datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko **eskubideak:** Larraulgo Udala, San Esteban Plaza, z/g- 20159, Larraul (Gipuzkoa).

h) **Segurtasun neurriak:** Oinarritzkoa.

2. LANGILEGIAREN KUDEAKETA

a) Fitxategiaren **helburua** eta fitxategi horretarako aurreikusi diren erabilerak: Udaleko langileak kudeatzeko, udaleko langilea bilakatzeko selekzio prozesuak kudeatzeko eta fitxategi nagusi mistoa administratzeko.

b) **Zeintzuk pertsona edo kolektibori buruzko datuak** eskuratu nahi diren edo zeintzuk pertsona edo kolektibo dauden datuak ematera behartuta: Langileak eta izangaiak.

c) **Datu pertsonalak jasotzeko erabiltzen den prozedura**: Paper eta informatikozko euskarrietan formularioen bitartez, Interesatuak edo euren legezko ordezkarien partez.

d) **Fitxategiaren oinarritzko egitura** eta bertan sartutako datu pertsonal moten deskribapena: Norberaren datuak (NAN, Helbidea, Izen-abizenak, G.S. Zkia/ mutualitatea, telefonoa), datu ekonomiko-finantziarioak (banketxe datuak, kontubankarioak, nominako datu ekonomikoak), ezaugarri pertsonaleko datuak (jaioteguna, jaioterria), egoera sozialaren datuak, ikasketei eta lanbideari buruzko datuak.

e) Datu pertsonalen **Lagapenak**: Aseguru etxeak, Gizarte Segurantzaren Elkarkidetzak, SASFAL, Mutuak, INEM, banketxeak, Epaitegiak, Ogasuna.

f) **Administrazioetan Tratamendu Kontrolatzaile diren organoak**: Larraulgo Udala.

g) Zein zerbitzu edo unitateren aurrean **erabili ahal izango diren** datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko **eskubideak**: Larraulgo Udala, San Esteban Plaza, z/g- 20159, Larraul (Gipuzkoa).

h) **Segurtasun neurriak**: Ertaina.

3. KONTAGARRI ETA EKONOMI KUDEAKETA (ARTEKARIAK)

a) Fitxategiaren **helburua** eta fitxategi horretarako aurreikusi diren erabilerak: Udalarekin eduki ekonomikoak dituzten eragiketarako mantentzen dituzten pertsona fisikoak eta juridikoak identifikatzeko kudeaketa egiteko fitxategi nagusi mistoa. Ekintza ekonomikoak IAE, SIGEko artekariak eta Udaleko ekonomi-finantziario kudeaketak (SIGE).

b) **Zeintzuk pertsona edo kolektibori buruzko datuak** eskuratu nahi diren edo zeintzuk pertsona edo kolektibo dauden datuak ematera behartuta: Interesatuak edo euren legezko ordezkariak eta artekariak.

c) **Datu pertsonalak jasotzeko erabiltzen den prozedura**: Euskarri mistoetan jasotzen dira, inkestak, elkarrizketak, deklarazioak eta formularioen bitartez.

d) **Fitxategiaren oinarritzko egitura** eta bertan sartutako datu pertsonal moten deskribapena: Norberaren datuak Izen-abizenak, ezaugarri pertsonaleko datuak (jaioteguna, jaioterria) egoera sozialaren datuak, ondasunak, transakzioen datuak, konpentsazioak/ kalte-ordainketak datu ekonomiko-finantziarioak (kredituak, maileguak, abalak...).

e) Datu pertsonalen **Lagapenak**: Beste herri Administrazioak, epaitegiak, auzitegiak eta banketxeak.

f) **Administrazioetan Tratamendu Kontrolatzaile diren organoak**: Larraulgo Udala.

g) Zein zerbitzu edo unitateren aurrean **erabili ahal izango diren** datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko **eskubideak**: Larraulgo Udala, San Esteban Plaza, z/g- 20159, Larraul (Gipuzkoa).

h) **Segurtasun neurriak**: Ertaina.

4. SARRERA ETA IRTERARAKO ERREGISTROA

a) Fitxategiaren **helburua** eta fitxategi horretarako aurreikusi diren erabilerak: Sarrera eta irterarako udal txostenen erregistroaren kudeaketa, Udal aurrean aurkeztutako eskaerak eta lizentziak kudeatzea. Beste helburu batzuk.

b) **Zeintzuk pertsona edo kolektibori buruzko datuak** eskuratu nahi diren edo zeintzuk pertsona edo kolektibo dauden datuak ematera behartuta: Udalera zuzendu diren edozein pertsonen idatziak, Udalarekin harremanak mantentzen dituzten empresak eta hiritarrak eta interesatuak edo euren legezko ordezkariak.

c) **Datu pertsonalak jasotzeko erabiltzen den prozedura**: Euskarri mistoetan jasotzen dira, deklarazioen eta formularioen bitartez.

d) **Fitxategiaren oinarrizko egitura** eta bertan sartutako datu pertsonal moten deskribapena: Norberaren datuak, datu ekonomiko-finantziarioak, komertzial informazioa, egoera sozialaren datuak, beste transakzioetarako datuak.

e) Datu pertsonalen **Lagapenak**: Beste herri Administrazioak, epaitegiak, auzitegiak eta banketxeak.

f) **Administrazioetan Tratamendu Kontrolatzaile diren organoak**: Larraulgo Udala.

g) Zein zerbitzu edo unitateren aurrean **erabili ahal izango diren** datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko **eskubideak**: Larraulgo Udala, San Esteban Plaza, z/g- 20159, Larraul (Gipuzkoa).

h) **Segurtasun neurriak**: Oinarrizkoa.

5. ADMINISTRAZIO ESPEDIENTEAK

a) Fitxategiaren **helburua** eta fitxategi horretarako aurreikusi diren erabilerak: Udalak, bere eginkizunen garapenerako bideratutako txosten administratiboaren kudeaketa.

b) **Zeintzuk pertsona edo kolektibori buruzko datuak** eskuratu nahi diren edo zeintzuk pertsona edo kolektibo dauden datuak ematera behartuta: Artekariak, Interesatuak edo euren legezko ordezkarien datu pertsonalak.

c) **Datu pertsonalak jasotzeko erabiltzen den prozedura**: Deklarazioen, formularioen eta beste herri administrazioen lagapenen bitartez.

d) **Fitxategiaren oinarrizko egitura** eta bertan sartutako datu pertsonal moten deskribapena: Txosten administratiboaren motaren arabera, Norberaren datu

pertsonalak edukiko ditu (NAN, Helbidea, Izen-abizenak), beste ezaugarri pertsonaleko datuak (jaioteguna, jaioterria) egoera sozialaren datuak (ondasunak, transakzioen datuak, konpentsazioak/ kalte-ordainketak), datu ekonomiko-finantziarioak (kredituak, maileguak, abalak...) eta lanbideari buruzko datuak.

e) Datu pertsonalen Lagapenak: Beste herri Administrazioak, epaitegiak, auzitegiak eta banketxeak.

f) Administrazioetan Tratamendu Kontrolatzaile diren organoak: Larraulgo Udala.

g) Zein zerbitzu edo unitateren aurrean erabili ahal izango diren datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak: Larraulgo Udala, San Esteban Plaza, z/g- 20159, Larraul (Gipuzkoa).

h) Segurtasun neurriak: Ertaina.

6. SARRERA-BILKETA, ZERGA-BILKETA ETA ZERGA-KUEDEAKETA

a) Fitxategiaren helburua eta fitxategi horretarako aurreikusi diren erabilerak: Ogasuna eta ekonomi-finantziario kudeaketa, Udalerriko Zergadunen datu pertsonalen kudeaketa.

b) Zeintzuk pertsona edo kolektibori buruzko datuak eskuratu nahi diren edo zeintzuk pertsona edo kolektibo dauden datuak ematera behartuta: Udalerriko Zergadunak, Interesatuak edo euren legezko ordezkariak.

c) Datu pertsonalak jasotzeko erabiltzen den prozedura: Euskarri mistoetan jasotzen dira, deklarazioen eta formularioen bitartez.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura eta bertan sartutako datu pertsonal moten deskribapena: Norberaren datu pertsonalak edukiko ditu (NAN, Helbidea, Izen-abizenak), ekonomiko-finantziarioak.

e) Datu pertsonalen Lagapenak: Beste herri Administrazioak, epaitegiak, auzitegiak eta banketxeak.

f) Administrazioetan Tratamendu Kontrolatzaile diren organoak: Larraulgo Udala.

g) Zein zerbitzu edo unitateren aurrean erabili ahal izango diren datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak: Larraulgo Udala, San Esteban Plaza, z/g- 20159, Larraul (Gipuzkoa).

h) Segurtasun neurriak: Ertaina.

7. UDAL ZERBITZUEN ERABILITZAILEAK

a) Fitxategiaren helburua eta fitxategi horretarako aurreikusi diren erabilerak: Kirol zerbitzuak, tailerrak, kultura eta Udalak beste zerbitzu ezberdinak emateko erabiltzen dituen Datu Pertsonalen kudeaketa.

b) Zeintzuk pertsona edo kolektibori buruzko datuak eskuratu nahi diren edo zeintzuk pertsona edo kolektibo dauden datuak ematera behartuta: Interesatuak edo euren legezko ordezkariak.

c) Datu pertsonalak jasotzeko erabiltzen den prozedura: Euskarri mistoetan jasotzen dira, deklarazioen eta formularioen bitartez.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura eta bertan sartutako datu pertsonal moten deskribapena: Norberaren datuak (NAN, Helbidea, Izen-abizenak), beste datu pertsonal batzuk (telefonoa), ezaugarri pertsonaleko datuak (ezaugarri fisikoak, jaioteguna, jaioterria) eta beste datu pertsonal batzuk (sexua).

e) Lagapenak: Beste herri Administrazioak.

f) Administrazioetan Tratamendu Kontrolatzaile diren organoak: Larraulgo Udala.

g) Zein zerbitzu edo unitateren aurrean erabili ahal izango diren datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak: Larraulgo Udala, San Esteban Plaza, z/g- 20159, Larraul (Gipuzkoa).

h) Segurtasun neurriak: Oinarrizkoa.

8. HERRITARREN ARRETA

a) Fitxategiaren helburua eta fitxategi horretarako aurreikusi diren erabilerak: Udalera zuzentzen diren pertsonak informazioa jasotzeko asmoarekin edo galderak, kexak edo proposamenak planteatzeko, Herritarren arreta zerbitzuan jasotzen diren datu personalen kudeaketa. Helburu ezberdinak.

b) Zeintzuk pertsona edo kolektibori buruzko datuak eskuratu nahi diren edo zeintzuk pertsona edo kolektibo dauden datuak ematera behartuta: Interesatuak edo euren legezko ordezkariak

c) Datu pertsonalak jasotzeko erabiltzen den prozedura: Euskarri mistoetan jasotzen dira, deklarazioen eta formularioen bitartez.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura eta bertan sartutako datu pertsonal moten deskribapena: Norberaren datuak (Izen-abizenak, Helbidea, telefonoa, e-maila...) eta ikasketei eta lanbideari buruzko datuak.

e) Datu pertsonalen Lagapenak: Lagapen gabekoa.

f) Administrazioetan Tratamendu Kontrolatzaile diren organoak: Larraulgo Udala.

g) Zein zerbitzu edo unitateren aurrean erabili ahal izango diren datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak: Larraulgo Udala, San Esteban Plaza, z/g- 20159, Larraul (Gipuzkoa).

h) Segurtasun neurriak: Oinarrizkoa.

9. IZATEZKO BIKOTE ERREGISTROA

- a) Fitxategiaren **helburua** eta fitxategi horretarako aurreikusi diren erabilerak: Udalaren Izatesko Bikote Erregistroak dituen datu pertsonalen kudeaketa.
- b) **Zeintzuk pertsona edo kolektibori buruzko datuak** eskuratu nahi diren edo zeintzuk pertsona edo kolektibo dauden datuak ematera behartuta: Interesatuak edo euren legezko ordezkariak
- c) **Datu pertsonalak jasotzeko erabiltzen den prozedura:** Euskarri mistoetan jasotzen dira, deklarazioen eta formularioen bitartez.
- d) **Fitxategiaren oinarritzko egitura** eta bertan sartutako datu pertsonal moten deskribapena: Norberaren datuak (NANA, Izen-abizenak, Konpartitutako etxebizitzaren Helbidea, telefonoa) ezaugarri pertsonaleko datuak (ezaugarri fisikoak, jaioteguna, jaioterria) eta beste datu pertsonal batzuk (sexua).
- e) Datu pertsonalen **Lagapenak:** Beste herri Administrazioak, epaitegiak eta auzitegiak.
- f) **Administrazioetan Tratamendu Kontrolatzaile diren organoak:** Larraulgo Udala.
- g) Zein zerbitzu edo unitateren aurrean **erabili ahal izango diren** datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko **eskubideak:** Larraulgo Udala, San Esteban Plaza, z/g- 20159, Larraul (Gipuzkoa).
- h) **Segurtasun neurriak:** Oinarritzkoa.

BIGARRENA: Erabaki hau Gipukoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, 15/1999 Lege Organikoaren 20.1 artikulua betetzeko.

HIRUGARRENA.- Datuen Babeserako Euskal Agentziari erabaki honen berri ematea.

BOSTGARREN PUNTUA

2009 URTEKO HERRIKO JAIEN KITAPENAREN BERRI EMATEA, HALA BADA

Ikusirik San Juan, San Esteban eta San Bartolome jaiak pasa direla, Alkateak jai hauetan egon diren gastuen berri ematen du. Jai guzti hauen kitapena ondorengoa izan delarik:

ORDAINKETAK

Aulki	389,52
Argi engantxeak	333,24
Gabezin	950,00
Kupela	1.100,00
Eneritz eta Edurne	600,00
Ansorregi eta Larrañaga	500,00
Ansoregi erromeria San Esteban	500,00

Urarte	550,00
Jokulandia	1050,00
Bertsolariak	1166,73
Atxaferoak	65,85
Kartelak	330,00
Plater tiraketa	250,00
Turutak	52,00
Goiz Argi	344,50
Herri Ostatua	231,60
Eszenarioa	150,00
Eszenario garraioa	271,50
DYA	56,91
Herri kirolak	
Egurak	70,00
Aizkorak	110,00
Tronza zerrak	90,00
Haur bazkaria	
Janaria	14,20
Oilaskoak	37,00
Baso eta platerak	7,80
Soka jokuetarako	4,50
Tarroak	15,00
Globoak	1,50
Ogiak	44,00
Helatuak	43,00
Karameloak eta dirua	45,00
Opariak	
Trofeoak	465,00
Pelota sariak	59,90
Txirrindulari opariak	119,00
Edariak eta txanpaña	146,80
Hamaiketakoa	
Ogia San Esteban	38,00
Haragia San Esteban	286,70
Ogia San Bartolome	37,40
Haragia San Bartolome	265,33
Berdurak	6,80
Elkartea	
San Esteban	440,95
San Bartolome	312,65
Jai batzorde afaria	232,34

DIRU SARRERAK:	Euroak
-Banketxean	877,20
-Udalaren ekarpena	9.000,00
-Propaganda (laguntzaileak)	780,00
-San Joan afaria	50,00
-Zikiro afaria	91,20
-Kañabera	155,20
-Sagardo probaketa	105,03
-Errifak	744,20
-Mus Txapelketa	260,00

GUZTIRA: **12.062,83**

ORDAINKETAK GUZTIRA: **11.284,72**

BALANTZEA: **+778,11**

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengo

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: 2009. Urtean San Joan, San Esteban eta San Bartolome jaietan egindako gastuen likidazioa onestu, 11.284,72 eurotako gastua izan delarik.

SEIGARREN PUNTUA

J.J.S. JAUNAK LARROLA NEKAZARITZA USTIATEGIAREN INGURUAN EGINDAKO OBRARI BURUZKO KEXAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik J.J.S. jaunak Larraola nekazaritza ustiategiaren inguruan egindako obrari buruzko kexa, ondorengo diolarik:

“.....**ZERA DIO:**

Larraulgo J.T.-ak Larrola nekazaritza-ustiategiaren inguruan hormigoizko zola edo explanada bat egiteko baimenaren eskaerari buruz, 2009-06-04ean Larraulgo Udalak ospatutako Ohiko Udalbatzarrean onartutako akordioak, besteak beste honela dio:

Larraulgo 69. Artikulua abeltzaintzako ustiategien instalazio eta eraikuntza osagarriak arautzen ditu. Honen arabera, hobia inguruko etxeetatik gutxienez 50 metrotara kokatu behar da, eta ondoko lursailaren mugetatik 8 metrotara gutxienezko distantzia mantendu behar delarik.

KONTUAN HARTURIK Otsozabal etxaldearen lur sailetatik eriki den abeltzaintzako hobira 35 metro inguruko distantzia besterik ez dagoela.

KONTUAN HARTURIK Otsozabal etxaldearen lur sailaren mugetatik 4 metro inguruko distantzia besterik ez dela mantentzen.

KONTUAN HARTURIK herri bidetatik 2 m metro inguruko distantzia besterik ez duela egin den zoruak, non lege edo arauen arabera tarte handiagoa mantendu behar den.

KONTUAN HARTURIK Lehenengo puntuak dioena: obra baimena ematea, **betiere** Udal Aholkulari Teknikoak eginiko txostenean **jasotzen diren baldintzak betetzen badira.**

ESKATZEN DU:

Obra eta erabilera berehala gelditzea, ezarritako baldintzak **aintzakotzat** ez dituelako hartu **edo bete.**

Egin den obraren baimenik ez ematea eta bide batez, aurrez onartutako obra baimen baldintzei atxikitze erabateko **derrigortzea.**

Idazki honekin batera, atxikirik doaz lau argazki, non eginiko eraikuntzaren xehetasunak agertzen diren.”

Ondoren, Udal Aholkulari Teknikoa den Eba Erkizia Brion arkitektuak, 2009ko urriaren 13an eginiko txostena irakurtzen da ondorengoa diolarik:

“LARRAULGO LARROLA USTIATEGIAREN ZABALGUNE BERRIAREN JARRAIPENAREN TXOSTEN TEKNIKOA

Larraulgo Udalak eskaturik J.T.O. jaunak egindako zabalgunearen jarraipena egiten da.

J.T.O. jaunak, 2009-ko maiatzaren 26ean Larraulgo udaletxean bere lursailean arto gozoa eta arto berdea ensilatzeko zabalgune bat egiteko baimena eskatu zuen, egin beharreko lanen azalpena, aurrekontua eta bi plano aurkezten zituelarik.

Eskatzen ziren lanak hauek ziren;	500m ² -ko hormigoizko zola
	500m ² -ko zabor-legarrezko zola
	5000l-ko hobia

Eskariari eman zitzaion erantzuna baldintzatua zen, ondorengo zehapenak ematen zirelarik;

- Hobia inguruko etxeetatik gutxienez 50 metrotara kokatu beharko da, ondoko lursailaren mugetatik 8 metrotako gutxieneko distantzia mantendu behar delarik.
- Metro bateko altuera gutxienekoa duen landarezko itxitura bat eskatzen da, honelako lurgaineko siloek ingurumen eta paisaiaren eragina murriztearren.
- **141/2004 dekretuak**, uztailaren 6koa, abeltzaintzako ustitategietako arau teknikoak, higieniko sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituenak, bere 2^a eranskinean, obra siloen zoruak eta paretak iragaitzak izango direla esaten du.
- Arto gozoaren likidoak jasotzen dituen hobia estankoa izango da.
- Arto gozoko ur hauek ezingo dira lursailetatik zuzenean zabaldu. Txiza urekin diluitu beharko dira edo eta simaurrarekin nahastu.

2009-ko irailaren 29-an, alkatearekin batera, ikuskaritza teknikoa egiten da, bertan egindako neurketa eta azterketen ondorioak hauek direlarik;

- Hormigoizko zola berriak **1426m²**-ko azalera bat du.
- Jarri den hobi estankotik ondoko lursailaren partzelara 4m bakarrik daude, 8m egon beharrean.
- Otsozabaletik hobira dagoen gutxieneko distantzia 35m-koa da.
- 1/2006 Bideen foru dekretua betetzen da. Arto-gozoaren silo eta herri bidearen arteko distantzia, 3m baina handiagoa da.
- J.T. jaunak landarezko itxitura neguan jartzeko konpromezua hartu du.”

Gaia azterturik eta Udalbatza honetara etorritako J.anaien iritziak entzunik, Udalbatza honek, aho batez ondorengoa

ERABAKITZEN DU

LEHENGOA.- J.T. jaunari Udal Aholkulari juridikoak urriaren 13an eginiko txostena igorri, jakinaraziz bertan esandakoa bete beharko duela, esandako dokumentazioa aurkezteko epea hilabetekoa izango delarik.

BIGARRENGOA.- Erabaki honen berri J.J.S. jaunari ematea.

ZAZPIGARREN PUNTUA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

ORUEZABAL, S.A.	47.850,00
ULAHI	770,69
SASMAK	169,86
ZALDUA	155,90

IZFE	1.737,61
ARGITU ASESORES	162,98
KIROLZER	111,10
ZALDUA	883,20
KIROLZER	106,30
ALTUNA MOTOR	120,00
PAPERTXULO	13,05
GALPARSORO	219,24
IHOBE	300,00
BABESA SUZAI	746,46
UROLA TUBOS	30,62
ABALLA	2.091,36
FERRETERIA BARBE	91,78
GIPUZKOAKO URAK S.A.	7.379,98
EDUARDO AIZPURUA IMAZ	51,23
GIPUZKOAKO ALDIZKARI OFIZIALA	96,25
PAPERTXULO	55,95
TELEFONICA	68,96
TELEFONICA	16,21
TELEFONICA	88,90
TELEFONICA	20,12
EUSKALTEL	181,24
REPSOLGAS	18,82
IBERDROLA	40,01
IBERDROLA	11,10
IBERDROLA	189,61
IBERDROLA	102,66
IBERDROLA	14,99
IBERDROLA	106,92
IBERDROLA	17,66
IBERDROLA	129,97
ASTEASUKO GURASO ELKARTEA	562,58

Udalbatzarrak **ahobatez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **64.713,31** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

ZORTZIGARREN PUNTUA
BESTE BATZUK

8.1.DIRU-LAGUNTZA ESKAERA

Ikusirik 2009ko irailaren 29an Justizia eta Herri Administraziozko sailburuaren agindua, non 2009ko ekitaldian aplikatzeko egokitzen den Bake epaitegi-tako funtzionamendu eta inbertsio-tako gastuei aurre egiteko udal-entzako laguntzak.

Ikusirik Larraulgo Bake Epaitegi-tako Epailleak eta Idazkariak egindako txostena zeinetan adierazten duten bulego-tako altzarien premia dagoela Larraulgo Bake Epaitegian, bulegoa berrantolatzen ari denez..

Ikusirik eskatu den aurrekontuaren arabera Larraulgo Udaleri bake epaitegi-tako bulego altzariak 1.725,14 (BEZ barne) euro-tako inbertsioa suposatuko diola.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA:Larraulgo Bake Epaitegi bulego-tako altzariak erosteko Eusko Jaurlaritzari 1.725,14 euro-tako dirulaguntza eskaera egitea 2009ko irailaren 29ko Justizia eta Herri Administraziozko sailburuaren aginduan arautzen dituen dirulaguntzen babesean.

8.2.ASTEASUKO ERREGE KABALGATAN PARTE HARTZEARI UZTEA

Ikusirik azken urte hauetan Asteasuko Errege kabalgatan parte hartzen zutela Larraulgo umeak, opariak jasotzen zutelarik.

Ikusirik azken urte hauetan asko igotzen ari direla Asteasuko Errege kabalgatan parte hartzeagatik suertatzen diren gastuak.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Asteasuko Errege kabalgatan gehiago ez parte hartzea.

BIGARRENA: Larraulgo herritarrei erabaki honen berri eman eta jakinarazi, hemendik aurrera umeak ez dutela eskutizarik jasoko Asteasun Errege kabalgatan opariak jasotzeko.

BEDERATZIGARREN PUNTUA
ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK

Ez dira aurkezten.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 22.55 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA